

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

162n. Zenbakia Jorraila
1992



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**EUSKERAZALEAK 1987 - 1991
25 URTE
1968 - 1 - 23 : 1º BATZAR NAGUSIA
KARLTON OSTATU NAGUSIKO ARETOAN**

MARTIAREN 8'A: EMAKUMEAREN EGUNA

ASI ERA

Joan dan Martiaren 8'an, ia mundu guztian zabaldu dan "Emakumearen Eguna" ospatu dogu. Andi-andika kontauta, jazoera ikaragarri onek benetan gogoratua izatea merezi dau:

Iparrameriketan, ola bateko andrak, euren-eurenak izan bear eben eskubideak lortzeko egin ebezan alegiñakaitik, laniztea egin ebenean, oleari sua emonda bertan erreta, bizia galdu eben.

Guzurra dirudian arren, mundu zabalean gizadia danetik, emakumea makal ikusi dau gizonak. Bera gorputzez indartsuago dan ezkerro, aulagoa, bere probetxurako tresna lez menperatzea izan da bere elburua; goragoko zerbaitegaitik begiratzen ez ba'deutso beintzat.

ERRIETAN

Judea'n, Jaungoikoaren ERRI AUKERATUan be, orain guk aitu ezin doguzanak jazoten ziran Biblian irakurten doguzanez. "Gizonen gogorkeriagaitik diñotse Jesusek, andren menpean eukitea onartzen ebala Moises'en Legeak.

Eta zer esanik ez, jentillen artean jazan bear izan dabezanak, baita orain be Irugarren Lurraldeetan, eta gure gizartean ikusten doguzan basatikeriak. Emakumea gizonen jostaillu eginik ainbat eeatn. Zein nekeza. gizaldietan zear, noizbeinka agertzen iakun "matriarkadua"!,,. Euskalerrian olango zerbaite egon dala diñoskuen arren... Geienetan etxean isillik eta senarraen uts egiteak parkatzen eta estaltzen ekitea izan da bere zoria.

EZIKETA

Mutikoak aintziñatik eskolara joaten ziran, neskatoak oster, etxean zeregiñik ez ba egoan ba ozta-ozta; baiña bes-tetan etxeko utsak beteten ekin bear eben. Etxean diru apur bat euki ezkerro, mutillak ikasiko eban: baiña neskeari etxerako probetxua atarako jakon. Naiz ta ikastaroak egiteko neskatilea bizkorragoa izan; olakoxea izan da gure gizartea.

Nire lagun batek diño: –Nire aitak, irakurten ikustean, astia galtzen nengoala uste izaten eban.

Gure amamak illoba bateri esana: –"Batxillerrarik" ez dogu bear etxean!–.

Farmazia ikasteko. ille bitan etxetik aldendu bearrak, galerazo eustan ikastaro orrek egitea iñostan beste batek.

LANBIDEAK

Egia da, neskatilea gizarteko txarkerietatik zaindu egin bear zala... Gaur etxeetan, apurka-apurka edo golpean,

bapatera, pentsakera barrietan sartu gara. Mutilla ala neskea izan, bardin ikasten dabe eta sarritan onek probetxu aundia-goz.

Legeak be, pixkanaka ba-doaz giza-eskubideak batzuentzat naiz besteentzat bardiñak dirala onartzen. Baiña oindiño, zenbat gura "matxista" gure artean, eta baita emakumeen artean be! Aitu eziña, bi milla garren urte-mugan, ainbeste eragozpen ipintea gizon edo andreari, lan bat edo bestea izan, zeregin orretarako gai ba– da beintzat. Ointsurarte, mutillei etxean amak ez dautse ezer erakutsi: dana eginda emon jakee. Gaur, ondo eroaten diran bikoteak bien artean egiten ditue etxeko lanak:– "Neuk irakatsi dautsat-diño emazteak– ez bere amak!"

IZAKERIA

Len, askoren eritxiz, gizona "gizonagoa" zan lan gogor-rak egitean, "astokillagoa" zanean; baiña samm-tasunik ezin eban agertu iñoren aurrean, ori emakumeari bakarrik jagokon. Eta alderantziz emakumeak, "etxea apaindu, umeak asi ta ezi, ikastetxean irakasleakaz seme-alaben goraberak jakiteko itz egin... Berba baten, zeregin fiñak, ostantzean bere emetasuna galdu zeikean... Eta gizonaren birtuteak, onoiemenak. kemena, indarra etziran emakumeari jagokozanak.

Bai emakumea ta bai gizona, bata besteagaz euren onoi-men, birtuteak alkartuta euren izatea osotuagoa izango da, elduagoa; gaurko jakitunak diñoskuenez, doaiak alkarbanatuz.

Goazen ba aurrera! Aldien ezaugarria da, emakumea bere duintasunaren balioaz konturatzen asia dagoala; eta mundua be bai! Orain urteak dirala, iñork ez eban pentsau be egingo, edozein karrera ikasteko gauza zanik: epaitegietan parte artzen dauala; aldun, diputadu, alkate izateko balio dauala.

ELEIZAN

Ausartuko ete gara eleizan bertan be baztartutako emakumea, gizonaren parean ipintea ez dala eziñezkoa konturatzen? Eta urte gitxi barru Eleizak berak be, abade izateko gai ez ete dau ikusiko?...

Jainkoak mundura, Jesukristo Salbatzaillea bialdu ebanean, moldeak ausi zituan, gizonen ikuspegiak: Maria aukeratu eban Salbatzaillea mundura ekarteko. Orduantxe bai, gure Jainkoa "feminista" agertu jakula, emakumearen duintasuna ta nortasuna gaillurera eroanda.

25 URTEAN EKIN DOGU

EGUN OSPAGARRIAK

Izatez urte guztiak ospagarriak izan arren, gizarteko oitureari jarraituz, urte batzuk ospagarriago lez artzen doguz eta onein artean dira ogei ta bostgarren eta berrogei ta amargarren urteak.

Eta olako ospakizunak egitea ondo jatorku, eginda-ko lana ikusita poza artzeko eta egiteko dauka^g una aztertuta, gure barrua adoretzeko.

Aurten dira 25 urte EUSKERAZALEAK ALKARTEA sortu zala eta ospakizun onek bear dau olako egun gogoangarri bat.

Ospakizun ori egiteko asmotan diardugu ba, EUSKERAZALEAK.

MEZEA

Egun orretarako egitaraua ezarterakoan, lenengo burura datorkun galdera auxe da: Ondo izango da egun onetan mezea egitea?

Batzordean arazo au aztertu dogu eta erabagia baiezta izan da.

Ondo dakigu Mezea, daukan sakontasuna daukalako. ez dala erabilli bear araudiak beteteko bear dan gauza lez edo apaingarri lez. Egia da baita, Mezea ez dala erri-giroko talde baten gauzea, fede-girokoa baiño, edo beste era batera esateko, Mezea ez dala eka-ri bear EUSKERAZALEAK TALDEAREN batzarre-
ra, EUSKERAZALEAK ALKARTEA dala mezara joan leitekena. Beste era batera esateko, Jaungoikoaren Erriak Eukaristia ospatzen dauanean, an dago lekua bakoitxarentzat eta taldeentzat. Mezea Fededunen Alkartearen gauzea da, fedea ospatzeko batzarra. Ez litzake txarra izango, esaterako, beti alkartzen dan kristi-
ña alkarteak daukon meza baten ospakizun ori fedegiroan egitea, BIZKAI'KO ELEIZEAREN BARRUAN.

Meza orretan, jakiña, lenengo egin bear genduken gauzea litzake, Jaungoikoari eskerrak emotea, 25 urtean Alkarte onek errien Sortzailc dan Jaungoikoaren laguntza izan daualako eta orrelan egin dauzan lanak egin al izan dauzalako. Eta bigarren gauzea, bere laguntza eskatzea litzake, erri-maitasunean eta lanean jarraitu dagigun. Irugairen elburu lez artu geinke, baz-

kide izan diran ildakoak gogoratzea. Berez Mezea geiago da bizien gauzea illena baiño.

JAKINTZAZKO EKIÑALDIA

Aurreko egunetan Bizkaierearen Astea ospatu geinke. Aste au aspaldion urtero egiten izan da, baiña azkenengo urtean ezin egin izan genduan. Orregaitik aurten ogei ta bost urteak ospatzea izan leiteke aukera egokia astea egiteko.

Aste orretan olako gai batzuk artuko gendukez: Gure alkartean izan diran gizon langilleak (Abeletxe, Xabier Peña, Montiano, Landajuela, Urkijo, ta abar). Euskerea Bilbao'n zelan doan eta arlo orretan zer egin dan. Alkarteak egin dauzan argitalpeneak aztertu. Urteetan egin dan Irakaskintza-lana gogoratu. Beste ekintza batzuk, esaterako Durango'ko Azokara aurkeztea, Euskerazaintza Sortzen laguntzea, gure gizarte-
etxea erostea ta egokitzea, urteroko Batzar Nagusia, Batzordearen 15' eroko batzarra, Ipuin-Sariketa. ZER aldizkaria, Egutegia, arpidedunak eta bazkideak, ekonomia...

ERRI-GIROKO BAZKARIA

Aste orretako larunbatean (bagillaren 20' an) Euskerazaleak Alkartearen inguruko guztiai bazkaltzera dei egingo geunskie, egunari dagokion poztasuna agertzeko giro berezia izan daiten.

Bazkari onetara adiskide asko etortea nai geunke eta etorriko dirala uste dogu.

Inguruko jantokiren baten egingo genduke eta eral-keta aundi barik. Bakoitxak ordainduta izango litzake bazkari ori. Orretarako, aurretiaz txartel bat eskuratu barko litzake, zenbat izango garan jakiteko eta ordain-keta egiteko.

Izango al da 25n. urte au euskerearen aldeko gogoia geure artean eta erri osoan zabaltzeko.

=>=> =>=> =>=>

EUSKERAZAINTZA'ren ARAUDIA

1'go araua: EUSKERAZAINTZA, Euskeraren Erri-Akademia, ondorengo arauon agindura ibilliko dan Erakunde au, 1964'ko Gabonillaren 24'tik indarrean dirauan "Elkarte-Gegea" deituaren legezo erabidearen babesera sartua dago.

2'gn. araua: Au dau bere elburu nagusia: Euskera, kondairatik dituan oiñarrizko bere euskalki nagusietan zaintzea, bizi-eraztea, indartzea ta ikerketaz aberastea, Euskera batuagoa lortzearen bila erriarekin alkar-lanean.

Eta ortarako:

A.- Euskadun bizi dan guztiak, Euskeraz jakiteko ta itzegiteko dauan gizabidezko bete-bearra, Euskalerra osoaren aurrean argiro azaltzen jarriko ditu bere ekintzak.

B.- Erki ta eskualde bakoitzean bertako Euskera jakitea bultzatuko dau, areitako bakoitzean beste eskualdeetako Euskera ere ikastera eragiñez, au bai-da biderik egokiena Euskeraren egiazko bateratzea lortzeko.

D.- Euskerazko irakurketa-idazketak ikasten lagunduko dautso erri euskaldunaren geien-goari, eta aldi berean gure izkuntza ikasteko erraztasunak eskeiñiko dautsez Euskadi'ko biztanle guztiei.

E.- Euskaldun erria da bere izkuntzaren egiazko irakasle ta zaintzaille. Ziurtasun ortaz jabeturik, erri orri eskatuko dautso laguntza, Euskeraren muiña adierazten daben esaera zaar eta esaldi egokiak jasotzeko lanean.

F.- Itz arrotzak bearririk gabe ta era ez-egokian barra-barra sartzearen aurka jokatuco dau, eta aldi berean izkuntzaren joskera ta jator-tasuna zainduco ditu indar guztiz.

G.- Euskera irakasteko ikastaldiak antolatzen eta burutzen, eta Euskal-irakasle Tituludunak gertutzen, egiñaalak egingo

ditu. Eta azterketak gainditzen dituztenei, dagozkien gaitasun-agiriak eta tituluak emongo dautsez. Gaitasuna lantzeko arlo ontan, berriz, oiturazko irakasbideetaz gaiñera, oraingo aurrerapen eta gizarteko komunikabideetaz baliatuko da.

H.- Mailla guztietako irakaskintza-liburuak eta ikastetakoak idazten eta argitaratzen lan egingo dauanez, gai bakoitzean ikasiak diranekin artu-emon estuak izango ditu.

3'gn. araua: Erakundearen legezo egoitza, Donosti'ko Getari kalean izango dau, 21'gn zenbakian, bee-barruan.

4'gn. araua: ESPARRUA: Erakunde onek bere ekintzak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Nafarroa erkietan burutuko ditu.

5'gn. araua: Izendaturiko elburuak ekintzara eramateko, bear ainbat Talde sortuko ditu Euskerazaintza'k, bakoitzak berari dagokion Erantzulea buru ta aalik geienak laguntzaille ditualari k.

6'gn. araua: Lan-talde bakoitzak bere Erantzule ta laguntzailleen artetik aukeratuko ditu Lendakaria ta Idazkaria.

7'gn. araua: Lan-talde guztiek astero naiz illero izango ditue euren billerak, eta aietako arazoak, egitasmoak eta erabagiak Erakundearen Zuzendari-Batzordeari aurkeztuko dautsoez.

8'gn. araua: Illero izango dau Euskerazaintza'k bere Batzar Orokorra, eta bertara joateko eskubidea izango dabe Lan-taldeetako bazkide guztiek, bai Erantzule ta bai laguntzaille, azkenengo oneik erabagirik gabeko itza dabela.

9'gn. araua: Onako auek izango dira Lan-taldeak:

- a.—Euskeraren egoerari dagokion ikasketa-ikerketarako Taldea.
- b.—Mailla guztietarako ikaste-liburuak egiteko Taldea.
- d.—Izkuntzaren bateratze-taldea.
- e.—Euskal-idazleekiko arremant-taldea.
- f.—Euskal-Irakasleen gertuera-taldea.
- g.—Euskal-itzultzaileen Taldea.
- h.—Gizarteko komunikabideekiko taldea.
- i.—Diru-arazoetako Taldea.

Etorkizunak adieraziko dau, Talde barriak sortzeko bear-izanik dan.

10'gn. araua: Ikerketa-taldea osotuko dabenak, izkuntzalariak izango dira (filologo ta linguista), eta Euskera bere adar, arlo eta mailla guztietan ikertzea izango dabe elburu, erri-izketa argitzekoan agertu daitezkan ikerketa-bideak ontzat artuko dituela euren lanerako.

11'gn. araua: Euskal-izkuntzalari ta idazle ospetsuz, Lan-taldeetako Erantzule ta laguntzaillez osotua izango da EUSKERAZAINTZA, eta Euskeraren aldeko lanean trebeki ekin dabenak eta gerokoan ekingo dabenak ugari izango dira oorezkoen saillean.

12'gn. araua: Euskera-arloan jakitun diran eta Euskeraren aldeko lanean trebeki ekiten dabenen artetik aukeratuak izango dira Lan-taldeetarako Erantzuleak.

13'gn. araua: Euskeraz burutu dituen lan baliotsuei mailla ori dagokienak izango dira EUSKERAZAINTZA Erakundeko laguntzaille.

14'gn. araua: Lan eta egiñaal benetakoak jarriko ditue Euskeraren alde Lan-taldeetako Erantzule ta laguntzailleek, eta Zuzendari-batzordearen iritzira, norbaitek bere egitekoa burutuko ez ba'leu, lan egin nai dauan beste bat jarri daiteke ordez.

ZUZENDARI-BATZORDEA

15'gn. araua: Araudi onen agindura eratua, arteztua ta antolatua izango da EUSKERAZAINTZA, eta bere zuzendari-batzordea osotuko dabenak, Lendakaria, Lendakari-ordea, Idazkaria, Idazkari-ordea, Diruzaiña ta Liburutegi-zaiña izango dira.

16'gn. araua: Oneik dira Lendakariaren egitekoak:

a.—Zuzendari-batzordearen eta Batzar Orokorren Buru izatea.

b.—Euskerazaintza'ren ordezkotza egitea edozeiñen eta legezko alkarteen aurrean, bai erri-serbitzukoetan bai besteetan.

d.—Erakundeko bazkide guztiei ikasketara ta ikerketara eragitea.

17'gn. araua: Oneik dira Idazkariaren egitekoak:

a.—EUSKERAZAINTZA batzarretara deitzea, eguneko gai-zerrenda ongi zeaztuta.

b.—Batzar eta billeretako batzar-agiria idaztea.

d.—Erakundearen urteroko ekintza ta lanen bilduma egitea.

e.—Erakundeak agintzen dautsozan ekintzak burutzea.

f.—Lan-taldeekin arremanak izatea ta areen langintza alkartzea.

18'gn. araua: Oneik dira Diruzaiñaren egitekoak:

a.—EUSKERAZAINTZA erakundearen diru ta ondasunak artzea ta erabiltzea.

b.—Diruen sarrera-urterak eguneratuta eukitzea.

d.—Sarrera ta urtera guztien laburpena urtero egitea.

19'gn. araua: Oneik dira Liburutegi-zaiñaren egiteoak:

a.—Euskera gure izkuntza zelan edo alan gai daben liburu ta idazkiak artzea, erostea ta egoki sailkatzea.

b.—EUSKERAZAINTZA erakundeko bazkideen liburu ta liburuxkak, idazkiak, ikerketak, e.a. trukitzea, gai bereko beste euskaldunen eta

ERAKUNDEAK

atzerritarren idazki ta lanak eskuratuz.

- 20'gn. araua: Zuzendari-batzorderako kargudunen autaketa, bazkideen arteko Batzar Nagusi Berezian burutuko dabe, autesleen irutatik bi autarkiren agindura. Irntatik bikoia lortu ezik, barriz jokaturiko dabe autaketa, orduan geiengo soilla naikoa izango dala.
- 21'gn. araua: Urte bian iraungo dabe kargudunek euren eginkizunean, eta barriz autatu aal izateko ez dago eragozpenik.
- 22'gn. araua: Artezkaritzarako kargudunen autaketa aurretik, bearrezkoa da autagaien aurkezpena egitea, ain zuzen ere Batzar Nagusi Berezia baiño bost egun leenago.
- 23'gn. araua: Artezkaritzako kargudunen aldaketak eta barritzeak be Batzar Nagusi Berezian burutzekoak dira.
- 24'gn. araua: Kargudunen aldi laburreko autaketak be Batzar Nagusi Berezian egitekoak dira kargu-barritze ta aldaketen era berean.

BATZAR NAGUSIA

- 25'gn. araua: Bazkideen Batzar nagusiak, Oizkoak edo Arruntak eta Bereziak izango dira.
- 26'gn. araua: Araudi onen agindura Urtarrillaren lenengo larunbatez egingo dau **EUSKERAZAINTZA** Erakundeak bere Batzar Nagusi Arrunta, gai auek guztiak aztertzeke:
- 1.—Sarrera-urteren laburpena ta diruegoera.
 - 2.—Urte sartu-berrirako aurre-kontuak zeaztea.
 - 3.—Zuzendari-Batzordearen egitasmoak eta eskeintzak.
 - 4.—Bazkideen asmo ta eskeintzak.
 - 5.—Galderak eta erantzunak.
- 27'gn. araua: Aurreko arauan zeazturikoa bezala ez diran Batzar Nagusi guztiak,

Bereziak izango dira beti.

- 28'gn. araua: Aipaturiko Batzar Nagusi Bereziak, batzekotan be, Zuzendari-Batzordeak deituta, eta bestela bazkideen euneko amarrek eskatuta, batuko dira.
- 29'gn. araua: Batzar Nagusiak izango dituan egiteko bereziak:
- A.—Erakunde osoak eta batez ere Zuzendari-Batzordeko guztiek euren egitekoa burutu dagien, ardurea izatea.
 - B.—Artezkaritzako guztiengandik barri zeatzak jasotea, Azkenengo Batzar Nagusitik aurrerakoan euren egitekoa burutzeko egin dituenak ikusteko.
 - D.—Erakundearen diru ta ondasunen ardura zeatza eroatea.
 - E.—Zuzendari-Batzordea izendatzea, Araudiari dagokiozan aldaketak egitea, ondasunak erabiltzea ta besterenganatzea, Zuzendari-Batzordearen esanera bazkide barriak artzea ta bazkideak kanporatzea, eta Erakundea deuseztea. Gertaera onetarako, eta 1965'eko Loraillaren 20'ko 1440'gn Aginduak bere 10, 3'ko arauan erabakiaren arauera, Batzar Nagusi Berezian diran batzarkideen irutatik biko zatiak, naiz beren eskuz eta naiz besteren orde, onartzea da bearrezkoa.

BAZKIDEEI DAGOZKIENAK

- 30'gn. araua: Eskubide osoko bazkideak edo euskerazain osoak, legezko adiña ta beren buruaz baliatzeko aalmena dituenak bakarrik izan daitekez.
- 31'gn. araua: **EUSKERAZAINTZA**'n Bazkide barriak artzea, beste euskerazain bat edo bestek eskatuta izango da, eta Araudi ontakoak betetzeko itza emanda.
- 32'gn. araua: Bazkide osoen egitekoetan bat, Erakundeari bere diru-bearretan laguntzea izango da, Zuzendari-Batzordeak garai bakoitzean erabakiko dauan neurrian. Bazkide osoen eskubideak, barriz, arauzko

billera ta Batzar Nagusi guztietan itza ateratzea ta autarkia emotea dira.

33'gn. araua: Bazkide-eskubideak galtzeko erak:

- a.—Bakoitzak berak naita, Zuzendari-Batzordeari idatziz adieraten dautsonean.
- b.—Araudi ontako bete-bearrak utzita daukazenean, naiz Erakundeari ta bere izen onari kalte dagionean.
- d.—Iltzen danean.

Bazkideak Euskerazaintza'tik kanporatzea, Batzar Nagusi Bereziaren eskubidea da, 29'gn arauan dagoanez eta ango agindua aurrez beteta.

ONDAREA

34'gn. araua: EUSKERAZAINTZA onek, sortze-koan, ez dau ezelako ondarrerik. Erakunde onek izango dituan ondasunak, bere bazkideen urteroko emaitzetatik, beste edozein adiskideren eskupekoetatik, erri-agintarien eta beste alkarteen diru-laguntzetatik, eta Erakundeak antolatu daikezan ekintza ta ospakizun ez-bardiñen emaitzetatik batuko ditu.

AURREKONTUA

35'gn. araua: Urteko aurrekontuari asiera-unean jarritako kopurua, eun milla pezeta dira. Erakundearen bearrek geiagorik eskatu ezkeru, muga ori gainditu eziñik ez dago, Urteroko Batzar Nagusiak erabaki bai-dagike, 1964'ko Gabonillaren 24'ko 191/1964 Legeak ontzat ematen dauanez.

DEUSEZTEA

36'gn. araua: Erakunde au deusezte, Batzar Nagusi Bereziak egin dagike

Zuzendari-Batzordeak ala eskaturik eta batzarkideen irutatik biren autarkiek, naiz beren eskuz eta besteren orde, ala erabagiten ba'dau.

37'gn. araua: Diru-kontuen garbitasuna egitean, eta zorrak ordaindu ondoren, zerbait geldituko ba'litz geigarri, Erruki-etxera eramatekoa da.

EUSKERAZAINTZA'k bere Batzar Nagusi Berezian onartu eban Araudi au, Donosti'n 1979'ko Lorailaren 26'an.

Eta legez onarturik gelditu zan 1979'ko Azillaren 23'an.

EUSKAL-ABOSTEGIARI BURUZ BERBALDIA.

MUNGIA'KO KULTUR-ETXEAREN ARETOAN
JORRAILLAREN 25'ean, LARUNBATA
GOIZEKO 11'tan.

EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN ERRI-
AKADEMIA'ra sartzan diranak, sarrerako itzaldia
egin berar dabe, AKADEMIA' ren arauak eskatzen
daben lez.

Arau-bideko itzaldi ori, jorraillaren 20'an egingo
dau oraintsu akademia'ren lendakari aukeratua izan
dan OLAZAR' tar Martin akademilariak.

Izlariak aukeratu dauan gaia, euskerearen abostegia
edo fonetika-fonologia izan da.

Gai au oso gitxi erabillia izan da eta arlo onetan
jakitun diranak be gitxi dira gure artean. Izlariak ale-
gin aundi bat egingo dau arazoa argitzen.

Lenengo jakingarri batzuk agertuko dauz, itzaldia
ulergarria biurtzeko, eta gero Mungia-inguruko eus-
kerearen abotsak eta aldakuntzak adierazoko dauz,
lur-irudi edo mapak aurrean dauzala. Eta abotsen
aldakuntza obeto adierazteko, Bermeo ta
Ondarroa'ko oguzkera batzuk be azalduko dauz.

Entzule izan nai daben guztiak dauke atea zaba-
lik.

EUSKERAZAINTZA'k

GURE IZKUNTZA

Aspaldi onetan, lumarik atsegin eta irakurgarrienen baita komunikabideak darabilten ulerteziñezko izkuntza, ez dala, ezelanbere, gure ondorengo jarraibide, salatu.

Danok dakigunez, ez da ori gauza barria, betiko leloa baiño; Bizkaiko ikastoletetan, bearrez, bizkaiera kendu eta bada-ezpadako euzkera ori jarri ebenetik, lenengo apur-apurka eta gero moltsoka, gudaketa antzeko bat sakabanatu da.

Arazoa ez da auntsaren gabeko eztula; eriotzara doana, bizkaiera da. Ona emen bizkaitarrok umezurtz, galduta, atsipeturik eta nora garoiazan ez dakigula.

Bestalde, Euskal Telebistan darabilena eta eskoletan irakasten dan euskerea, motel eta nortasun bakoa da (ulerteziña batzutan).

Au egieztatzeko Bizkai-inguru eta Bilboko ormetan jarrita dagozan iragarriak irakurri baiño besterik ez dago.

Bein eta barriro entzuten izan da: "Euzkaltzaindiak euskara batuari buruz eman dituen arauak"... Urteak igaro dira eta bizkaitarrok geure buruari itaundu bear deustgu zelako arauak ete ziran:

"osotu" = completar", edo, esateko "oaatu" esan bear.

.oaatu" = "curar" esan bear danean "sendatu"...

Ba dira beste abar luze bat: "posible", "espero", "Medio dela", "festa", "dexente", "conprenitu", "gerla", "irla"...

Badakigu euskalki guztietan txokokeriak erabilten dirala, baiña Bizkaian, bizkaierazkoak txartxat itxi eta iñongoak (edo beste euskalki batekoak, beintzat), artu bear antza. (Ezin esan au zapalkeria ez danik).

Aidean itaun asko geratzen dira oraindiño, baiña gauza bat dago argi eta garbi: Iñoren eritxipean bizi gareala, iñoren pentsakera ezbadiñen zain.

Bitartean, gu eskuak loturik gagozala zer jator-kunari begira, ezer egiteko gauza ez gareala, legeak gure aurka dagozan ezkerro. Bearrezkoa da pentsatzea zeri begira dagozan Bizkaiko agintariak gauzak olan jarraitzen izteko.

GORRIAK ETA ZURIAK

Belgika'n, 1937'an izan ei zan. Bultzi baten, bertako lagun batzuk. Espaiñako gudatea dala ta, berbetan jo-ta-ke ei joiazan: anaiarteko guda izugarria, gorriak erlijioaren aurka ainbeste basatikeri egiten... Eta eurokin bat eginda, aitu-eziña, kristau eta katolikoak izanda: EUSKALDUNAK!

Bonbaketak, Durango, Gernika tab... Ebakuaziñoak... Ilketak... Guztia pil-pil egoaneko aldiak izan bear eban.

Antxe bultzian, ixil-ixilik, dana entzuten, adidi, abade txiki bat ei joian. Baiña alango baten, gizonok euron autua amaitu ebenean, abade txikia, baimena eskaturik berbetan asi ei zan. Eta, asi bazan asi, ez ei eban amaitu arik eta "kruzada aintzatsua", gorriak, zuriak, Euskal Erria, Euzkadi, zeatz-meatz bakoitza bere lekuan ipiñi arte.

Belgiarrok itz barik geratu ei ziran. Eta arrituta, azkenez galdetu ei eutsoen:

- Baiña, guzti ori, zelan dakizu zuk?...

Eta orduan, Don Joxe Migel'ek (axe zan ba, gure abadetxoa), apalik erantzun:

- Ba, euskalduna naizelako ni!...

Eta orduan eurok:

- Euskalduna zu, zelan?... Euskaldunak, morrosko, galant, aundi, indartsuak izan oi dira!

- Eta barriro Don Joxe Migel'ek apalik:

- Ba ni, euron arteko zazpiki bat baizik ez naiz.

Ia 102 urtetan, jakituriz betetzen jardun ondoren, Betiko Bizitzara oraintsu joan jaku gure Don Jose Migel txiki aundia! Arrezkero beratzaz, guraiña gauza entzun eta irakurri izan ditugu. Baiña urteak dirala nik entzundako au aitatu ez dalakotan, "ZER"era bidaltzea bururatu jat, irakurleen jakingarri.

MAITENA'k



BAKEA EGIN

BAKEAREN ALDE

Bakea! Bake urregorria! Gaur egun, iñoiz baño geiago, barru-barrutik sortzen jaku bake-orroi sakona. Bake irrintzia mendirik mendi, auzorik auzo eta etxerik etxe dabil, intziri garratz bat bezela.

Bakea ez da guda-eza. Ondo dakigu zer dan guda-otsa eta guda otza. Alde galanta dauke. Baña bata zein bestea oso izugarriak dira, eta bigarrena lar gogaitgarria.

Bakeak beti izan ditu etsai amorratuak. Eta au zorarena! Bakea indarkeriz eta odolkeriz eskuratu nai izatea.

Au dala-ta Euskal-errian, batez be Bilbo uriburuan, bakearen alde agerpen ederrak izan ditugu. Ghandi jauna, ortarako, eredutzat artu izan dabe.

Baña talde txiki batek Ghandi'ren esakun bat erabilli dabe euren indarkeria eta burua garbitzeko. "Obe da indarkeria, koldarkeria eta joputza baño".

Egia esan Ghandi'k beti jokatu eban indarkeriaren aurka, koldarkeri barik, eta joputzaren kateak nun-nai auzirik. Eta, zergaitik ez? Ghandi'ren bizitza osoa sekulako indarrrik aundiena eta biziena izan zan indarkeriaren kontra.

Guk esan bearco dogu: Kristo'ren indarra bere maitasuna eta zuzentasuna, bere garbitasuna eta leialtasuna agiri izan zan gizon azal-utsen eta zapaltzalleen aurrean. Baña odol tantarik ixuri barik, berea izan ezik.

BARRUTIKO BAKEA

Ghandi jauna bakearen egille eta gidaririk jatorrena izan dogu. Eta berba baten batu eta bateratu ebazan bere asmo eta jokabide guztiak: "EZ-INDARKERIA".

Esku artean daukot berari buruz egindako liburu mardul bat. Bertatik atera dot idaz-lan onen mamiña.

Ghandi'rentzat bakearen sorburua biotz barruan dago. Baña biotz barruko ondasun ori Jainkoa'gandik datorkigu. Danok gara Jaunaren seme. Sinismen onek indarkeriaren aurka mundu osoa batu bear leuke.

Munduaren indarrrik aundiena ez dira izkilluak edo armak, giza-emakumeen biotzak baño. Ez-indarkeria giza-semeen esku dago: umeak, gazteak, nausiak eta zarrak, Jaunagan sinistu gura ba dabe, Jainko maitetsua eta maitekorra.

Ez-indarkeria lege bizia bezela artzen ba'da, gizadi osoaren ederra irabaziko dau, eta gizadi osoaren ederra indarrrik zoragarriena izango da.

Gizonaren indarra oñazea da, eta ez ezpatea. Sarri gogoratzen dau Kristo'ren esana: "Sartu ezpata ori bere zorroan, ezpata darabilen guztiak, ezpataz ilgo dirata". Goiz edo berandu etorriko da zigorra.

Barne-muiñeko garbitasuna da biderik egokiena gure izakera gaiztoa eta anketra barriztatu eta aldatzeko.

Mundu ontako ainbat eta ainbat zoritxarrek baño buruko-miñ geiago emoten dauste gizon basatien burruka gogorrak.

Gizartearen ezbearrak goituten dabezanak, azi eta azi doaz barruko jatortasunean eta, baita be, gizarte-maillan.

Ez-indarkeria gizonak asmatu dabezan iztillu triskagarriak baño indartsuagoa da. Triskantzak eleuke euki bear zer ikusirik gizartearen lege eta jokabideetan.

Naiz eta arrazoirik aundienak euki, giza-ilketa beti izango da gaiztakeri gorria eta zoroa.

Indarkeri bideak ikasteko eskola bear dan lez, alantxe ikasi eta saiatu bear gara ez-indarkeria gure gogoan onartzeko.

MAIXUAREN MEZUA

"Nik ez daukot mezurik, nire mezua neure bizitza da-ta". Izan be auxe da maixutasunik jakintsuena: gure bizitza, bake eta maitasun-bizitza.

Ez-indarkeriak beti dau berebiziko indarra, indar baikorra, maitasunaren indarra. Maitasunaren kemenak gorroto guztiak ezereztu bear ditu.

"Iñoz, bearbada, indarkeriaren alde dagozanakin batuko naz, baña eurei zintzoro eta benaz adierazteko euren oker-bidea".

"Nire bizikizuna auxe da: sekulo ez dala ondasun iraunkorrik eskuratu indarkeri bidetik". Azke bizi naz eta prest nago ilda jausteko. Baña sekulo ez daustot iñori bizitza kenduko". Edozein eraillketa, naiz eta arrazoirik aundienak euki, gizadiaren kontrako gaiztakeririk zitalena da".

Bakea, egunero, egin egin bear da.

URIGUEN'tar ZENON

PERSI KOLKOKO GUDAREN ONDOREN

GOGORKERIAK

Urte bete igaro barri da Persi-Kolkoko Gudea amaitu zanetik. Zelan doaz jazokizunak? Obetu al dira?

Zerbaiten bai, baiña sustraia Irak Laterriaren erraietan ondo kokaturik daurkigu ta orrela ez da iñola ere erreza arazoa zearo, guztiz zuzentzen. Or dogu koska, Saddam Jusein ollar ernai bat bezala gaillurrua tente, ta erpak ingurumarikoai bein eta barriro sartzen.

Esan dagiela Basora inguruko Txiiak eta laterri mugetako Kurdoak ez ezik baita ere Badag'en bertan eta inguruko erri ta urietan Irak Laterriaren barne-barnean bizi diranak.

Egunotan be urrut-ikuskiñak agertu dausku beste laurreun-erritar edo, urten dirala Irak'etik Saddam Jusein'en erasoetatik igesleku lez España aldera batzuk eta Laterri Batuetara ta Kanada'ra besteak.

Alan da be irurogeita amabi dirauskuenez España'tik Jordania'ra igorriko ditue barriro, agiririk ezagaitik.

Datozenak ez dabe arpegirik erakutsi gura, al ba dabe illuntasunean eta gerispean jarrai baiño, euren guraso edo beste senidetartekoak Irak'en bertan bizia galdu ez dagien. Ori ei da bizitzea...!

KIZI-INDARREZKO LERKAIK

Atomik indarra ta Ierkaiak zertu edo amaitzeko gai berezienak kendu eutsezan Saddam Jusein'eri berak galdutako igezko gudean, barriro baiña ekin dautso geien baten ezkutuan izan arren, jomuga edo elburu ori lortzeko.

Ez dira izan susmo txarrak soillik, baita atomik ekintza on-en agerpenek ere.

Gudean esku artu eben Laterriak bein eta barriro bialdu dautsez Jusein'i begiralnriak, olan alango etekiñakaz.

Asiera baten ez ebezan onartu, gero laterrien zemaia bide zirala-ta erdipurdiz eta gogo txarrez bada be Saddam'ek ez eutsen eragozpen larregirik ipiñi.

Bush Lendakaria gerturik egoan barriro be lerkai jaurtiketak erabiltzeko.

Atomik indarrez jarraituz bai da oraindiño bildurra En-usiako Laterri sakabanatuetatik joan daitezela bertatik aldendu edo iges egindako ijjieneru ta bestelango atomik ^gaietan jakintsu banaka batzuk bai Gadafi'ren Libiara ta baita ere Saddam'en Irak'era.

Orain diñoenez Laterri Alkartuen zera izan lei Txiiat ta Kurdoai izkilluak bialtzea eta, batik bat Saddam'en inguruko ta lagunarteko izan diran buruzagi ospetsu batzuk (Laterri guztiak erdi ezkutuan eta marrokeriz bada ere ekintza onartu ta lagundurik) iraultza baten bidez Juseim bera gainditu dagiela.

Sadam'ek, ikusten dogunez, ez eban azken baten jade-tsi atomik lerkairik zertzea, bai ostera Kimi ta bakterioloji izkillu anker-negargarriak.

Or lekuko Iran'dar, Kurdo ta Txiiak. Guda zelaiak zearo gorpu erre ta zeatuz beteta bein eta geiagotan urrutikuskiñan, argazkietan eta marrazkietan ikuskatu genduzan.

Au bai ankerkeri utsa! Onen aurka doaz ba laterri alkartuen ekiñaldiak.

KALTE BATZUK

Persi itxasoko kutxadura txit izugarrizkoa izan zan itxasoan bertan, ingurumariko bizitza il ebanez (ez an-aiñik, ez egazkirik ezin zeitekean bizi) eguratsan eta Irandar ta arabiko lorretan.

Arabia, edateko ur gabe aspaldi baten egon zan eta, kimika bidez, itxasoko ur zikin eta gazitua garbitu bearrean.

Itxasoko kutxadura au obetu arren, oraindiño luzarorako izango ei da.

Irak'arrak an-i-oleoak erre ebezan, guztiz ia milla izan ziran eta, onek bere, kutxadurea eguratsan batez bere geiagotu eban.

Gaur egun, kalteak dolan-etan milloika ta milloika izan eta zenbatu arren suitzungilleak lortu dabe suak itzalitea, ortan amar illabete igaro ondoren.

Suak batik bat Kuwai later' ⁱ tnenperatuan izan ziran.

Orain Kuwait azkatuta dago, itzuli edo bertaratu dira bere buruzagi ospetsu ta aberatsak, alan da be ez dira bertako arazo gordin-gordiñak gura izan zan bestean zuzendu.

Palestindurrak su ta ke estutu ta aizatu dabez Jusein'en alde egon ziralako; erria txiroago dago, buruzagiak ollartu dira ta erria keixu ta arrenkuraz ... Au egungo eguneko Kuwait.

LAGUNTZA DAMUGARRIAK

Nork emon eutsen laguntasuna Saddam Jusein'eri? Besteak beste, laterri batzak ere izkilluz eta onulariz guda aurretik beteta eben Irak osoa, Tran'en aurka izan eban guda luzean, Jomeini'k euren arteko guda zakarra irabaziko eban bildurrez. Ez eban Jomeini'k irabazi ta azken baten zearo indartu zan Saddam.

Ba-dauka kondairak nori bota errua! Uste dot iñoiz be ez doguzala politikariak ondo ezagutuko. Gaurkoz amaitzera noa.

Bilbao'n, 1992'gko. otsaillaren 10'ean

ARREGI'tar' JOSU'k

EUSKO LEGE-BILTZARRARI

(Becerro de Bengoa kalea)
01005 - GASTEIZ - VITORIA

Agiri au izenpetzen dogun Bizkai'ko naiz beste errialdeetako euskaltzaleok; Bizkai'ko Euskereak daukan egoeraz arduratuta, eskabide au eldu erazo gura dautsaQu Eusko Legebiltzarrari, bizkaitarron eta euskaldun guztion ondarea dan bizkaierari bere babesa eta itzala emon dagion.

Izan be tamalgarri deritxogu bizkaierak bizkai-ko bizitza agirian daroan egoerari, iñongo autorpen barik, Bizkaiko erakundeetatik kanpora, udal eta errietako administrazio geienetan baztartuta eta azkenengoz baiña ez azken lekuan, bere aldeko iñongo politika ofizial barik.

Bizkaierak beste zenbat arlotan be arrisku aundia ba-dau: irakaskuntzan, komunikabideetan eta abar. Baiña erakundeen aldetik jasotzen dauan jokabideak, au da, bizkaiko erritarrek euren izke-rea baliotuta ez baiña bastertuta ikusteak, urritu egiten dau bizkaitarren estimazioa eta erderaren nagusitasuna indartzen dau.

Bizkaiera da Bizkaiko euskerea eta bizkaiera barik ez dago euskerarik Bizkaian. Euskal Erri osorako Iandu bear dan euskera batuak bere lekua

izan leike Bizkaian, gaiñerako errialdetan legez, eta orrela autortzen dautsogu izenpetzen dogunok, baiña nai ta ezko deritxogu bizkaierari leku-une bat gordetzeari.

Jakin dogunez Legebiltzarrak laster emon bear dau lege bat Bizkaiko Foru Zibilla barrero arautu eta indarrean ipintzeko. Foru zibil orrek Bizkaiko elizateetan (Arabako Audio eta Aramaioz gain) izango dau indarra, Bizkaiko euskaldunak nagusi diran tokietan. Lege ori bizkaieraz besterik ez dan lekuetarako danez eta gure izkereak bear bearreko dauan autorpenagaitik au da gure eskabidea:

Bizkaiko Foru Zibilla bizkaieraz atara dagiala Eusko Lege Biltzarrak.

Bilbao 1992'ko otsailaren 16'an.

Izen abizenak

E.N.A.

Izenpea

Aurreko agiri au euskaldun askok izenpetuta bialdu zan Lege-Batzarrera, eta agiri onetan egiten dan eskaria oso egokia dala uste dogu: Zergaitik egin bear zan euskera batuz bizkaitarrentzat diran lege zarrak dakarzan liburua? Baiña ori be sartu zan baten-baten buruan.

Dana dala, entzun dogu Lege Zar orreik bizkaieraz argitaratzeko erabagia artu dala. Antza dagoanez, zentzundunen bat izan da or bitarteko.

Bizkaitarrok olako arazoak agertzen diranean, zur eta sendo jokatu bear dogu. Naikoa eta lar izan da gure euskerearen aurka orain artean egin dana eta ez dogu itzi bear geiago ezer egiten bide orretatik. Geure euskerea geuk zaintzen ez ba'dogu, iñok ez dau egingo lan ori.

Zur ba. Bizkaitarrok eta bizkaieraz itz egiten dozuen guztiok eta eutsi gure euskalkiari. Bizkaia'n bizkaieraa galtzen ba'da, beste euskalkirik ez baturik ez da sartuko, erdereza izango da sartuko dana, len be naikoa sartuta dago-ta.

IDAZKOLAKOAK

JESUS'ERI TALDEAN JARRAITZEN DIOGU

Gizakia, gizon eta emakume, taldean bizi izateko egiña da: famili batean sortzen gera eta erri batean bizi gera. Ez gera perretxikuen antzera bakardadean sortu, banan-banan eta inforekiko artu-emanik gabe. Eskolara taldean joaten gera: futbolearen taldean egiten degu; eleizan otoitzak taldean egiten ditugu.

Jesus'ek badu berak sorturiko talde bat ere. Ikasleak aukeratu zitun eta oiekin Eliza deritzan taldea sortu zuen. Bere jarraitzaile izan nai badegu, talde orretan jarrai bearako diogu. Apostoluei eman zien talde ori aurrera eramateko agindua: "Zoazte munduan zear eta nere Berri-ona zabaldu baztar guztietara nere ikasleak egiñez".

Gu Jesus'en jarraitzaile ha'gera asmo ori aurrera eramaten lagundu bearako diogu: baña ori lan gaitza da eta zailla guretzat bakarka egin nai badegu: taldean egiten badegu, ordea, bere laguntza izango degu.

Jesus'en izenean alkartzan geranean Jesus berbera dago gurekin bat egiñik. Onela dio (Mat. XVIII, 19-20).

"Egia esan, berriz ere: zuetan bik lurtean alkar jartzen ba' dute, edozer eskatzeko, zeruko Aitak emango die. Bi edo iru nere izenean bildurik ba'daude, an nago Ni, aien erdian".

*

Taldean jaiotzera gera sinismenerako, taldean bizi degu gure sinismena eta taldean aurkituko degu geure azkenmuga. Talde ori da Kristau-taldea edo Eliza.

Nik zer eskeintzen diot taldeari? Zer ematen diot? Nere lana, nere otoitza, nere laguntza...

Eta taldeak zer ematen dit neri? Jesus berbera arkitzen det, Goimaitasun-Arnasarekin batean, bere otoitza, okerkerien barkamen eta pakea, bere babesa, bere itzala eta aterpea... "Egunero zuekin nago munduaren azken egunerarte" esaten digu Jesus'ek. "Jarrai nere ondoren, nere zarra arña da..."

"Goazen elkarturik
piztu-ta fedea,
argitan zabalñik
maitasun-bidea".

JESUSEN JARRAITZALLEN EZAUGARRIA MAITASUNA DA

Jesus'ek bere bizia besteentzat bizi izan zuan, gure alde guretzan eman arte. Bere ezaugarria gureganako maitasuna izan zan. Gurea ere ala izan bearako du: Gu Jesus'ek maite izan gaituen bezala, guk ere orrela lagun-urkoa maitatu.

Ostegun Santuko arian onela esan zigun: "Maita ezazute alkar nik maite izan zaituztedan bezala. Orixe izango da nere ikasleen ezaugarria".

Testamentu Zaarreko Biblian onela esaten azaigu: Maite ezazute lagun-urkoa zuen buruak bezala. Baña, Testamentu Berriko Ebanjelioan, berriz, onela: Maite ezazute alkar nik maite izan zaituztedan bezala.

Lagun-urkoa geure buruak bezala maitatzea, gauza ederra da; Jesus'ek ordea, ori baña geiago dio: Berak maite izan gaituen bezala.

Eta, nola maite izan gaitu Jesus'ek? Ara nola: Munduan jaio zan gure lagun izateko; Azken Arian ogi biurtu zan gure janaria izateko; gurutzean iltzan gure okerkerien zorra ordaintzeko; eta zerura igo zan, an egunen batean gure saria izateko.

Neurria Jesus'ek oso altu ipiñi digu, berak arañño salto egin du-ta. Bitartean nun bere antzeko izan ez zaigu faltako bizi onetan; bere laguntasuna ere izango degu. Jakin nai dezu zenbaterañño maitatzen dezun Jainkoa? Begira zenbaterañño maite dezun lagun-urkoa.

Lagun-urkoa maite degun bakoitzeko, Jainkoaren aurpegia irriparez ikusten dute gure ingurukoek. Begira nolako bear duen izan gure maitasunak, San Pablok dionez (1 Kor. 13, 4-7):

Maitasuna eramankorra da eta biozbera;
maitasunak ez du bekaitzik, ez audiusterik;
maitasuna ez da arroa, ez da berekoa eta ez da asarratzen; ez du kaltea gogoan artzen;
ez da bidegabekeriakin pozten, egiarekin baizik;
dana barkatzen du,
danan sinisten du,
dana itxaroten du
eta dana ongi-naiez eramaten du..."

Orrela maite al dezu lagun-urkoa? Zorionekoa zu ala ba'da. Oskar Romero, San Salvador'eko Gotzaiak bere erriaren alde lan egiteagaitik, tiroz il zuten aldararen Meza ematen ari zala...

AGINDU BERRI BAT DU
JAUNAK EMAN;
ELKAR MAITE DEZAGULA
BERAK GU BEZALA (BIS).

JAINKO-ERREINUAREN BIDEA

Jainko-erreinuaren ezaugarria maitasuna dala esanda daukagu: Jainkoa maite izan eta lagun-urkoa ere bai. Jainkoa maitatzen da, bere naia betez. Eta, Jainko orrek bere Semea bialdu digu mundura, Jainko-erreinuaren bidea erakusteko. Bide ori, Jesus berbera da.

Bera bizi zan erara gu bizi izatea, orixe da Errenurako bidea. Baña, Erreinu ori miresgarria da oso. Erreinu orretan zein uste dozu izango dala nagusi eta zoriontsu? Beartsuak, negar egiten dutenak, errukitsuak, egizale zintzoak, bakegi-llak, zuzentasunaren billa dabiltzanak...

Maitasuna dala ezaugarri esan degu. Ona heste ezaugarri hatzuek ere maitasunarekin batera:

Bakea.
Egia,
Zuzentasuna...

Geure buruko neurriak bestelakoak izan oi dira. Zorionekoak:

Aberatzak,
Indartsuak,
Errukigabeak,
Burrukalariak,
Besteak engañatzen ahillak,
Bere buruari hesterik hegiratzen ez dutenak...

Baña, bide orretatik zer ondorio datorkigu? Asarreak, (orrottoak, eriotzak, lapurretak, besteak ondandendira botatzeak, gezurrak, injustiziak, gerrak eta okerkeriak etenik gabe...

Mundu onetako zorientasuna hillatzeko, gure gizarteko iragarkiak bide aukeratzeko diskigute: Dirua, dirua ugari, etxehizitza ederrak, bitxiak, automobilak, loteriak, diru-jokuak eta abar oien antzekoak. Eta, badute beuren balioa; baña, ez haliorik aundiena. Balio geiago dute askatasunak, egia, zuzentasunak, maitasunak... eta betirako bizia dan Jainkoaren Erreinuak. Jesus'ek dionez, onetxek du baliorik aundiena.

Nolakoa agertzen da mundu onetako iragarki oiek erakusten di-uten gizakia? Berekoia da. Bere zorientasuna besterik billatzen ez duen gizakia. Jesus' en En-einuko maitaleak, nolako bear dute? Besteen zoriona billatzen dutenak. Bein batean, Txina'ko jakintsu bat infernura joan omen zan eta jcudea oso asarre bizi omen zan; jateko maiak zeuzkaten janari eta edari ederrez ugari ornituak, baña, aiek jateko kollara eta tenedorak kirten oso luzeekin eta jan ezin. Joan zan zerura eta an ere berdin: baña, pozik, janak bata besteari ematen ziolako.

JESUS'eri ASKATASUNEAN JARRAITZEN DIOGU

Jainkoak egin ditu izaki guztiak; baña, bere irudikoak Qizona eta eniakumea egin ditu bakarrik. Ezaguera eman digu eta erabakitze aalmena: oiek ematen digute benetako askatasuna.

Ez da gure gogo biurriak betetzeko askatasuna, Jesus'en Qogoa eta naia betetzeko, baizik. Orrela, aske izanik, jarrai deiogun. Bere ondoren joateko, ez gaitu Jesus'ek indarrez beartzen. Aske uzten gaitu guk nai doguna erabakitze: jarraitu ala ez.

Jesus'ek ondartzan 4.000 gizasenieiri jaten eman zien eta ondoren, Kafarnaum zeritzan erriko Sinagogan, auxe Qertatu zan: Jesus'ek agindu zien bere gorputza emango ziela jateko eta batzuek ez zioten ori sinistu. Eta, ori esan zuelako, alde egin zioten. Eta Jesus'ek orduan bere ikasleiri onela galdetu zien: Zuek ere alde egin nai al dezute? – Nora? Erantzun zioten. Zuk dauzkatzu betiko bizirako itzak...

Askatasuna gure aukera da. Nik neure gogoz aukeratzen det Jainkoa'ren naia, naiz neuretzat atsegiña ez izan. Jesus'ek

gurutzea bere atsegiñaren aurka aukeratu zuen, ori zalako Aitaren naia. Gurutzea ez zitzaion atsegingarri. oso nekagarri, baizik: baña, orixe zan bere Aitaren naia gure pekatuen ordaiñerako.

Jesus'ek maite izan nau: Neregaitik gizon egin zan; nere-tzako gelditu zan Eukaristian: nere alde eman zuen bizia ,aurutzean eta nere zai dago zeruan bere zorientasuna neri eskeintzeko... Neuk ere maite nai dot. Eta, maite delako, orrexegaitik, bete nai det bere naia eta Aitarena.

Gustokoak bakarrik egiten ba'dituzu beti, ez dezu nortasunik sekulan lortuko. Ez zera sekula bere buruaren jabe dan norki edo persona izango; besteek eragiten dioten txontxongilloa bai, orixe izango zera beti.

Nortasunik gabeko txontxongilloa.

ESKERRAK EMAN / ZERU LURRETAN
ESKERRAK EMAN / JAINKOARI

JESUS'ek LEGEA BETETZEN DU

Jesus'ek berez ez digu araurik ematen, maitasuna besterik: Jainkoa maita neurririk gabe eta lagun-urkoa mugarik gabe. Alaz ere, Jesus'ek onela dio:

"Ez uzte izan Legea eta Profetak baztartzera etorri naizena: baztartzera ez baiño betetzera etorri naiz... Legeko Aginduak bete eta orrela erakusten duena, ori aundia izango da Zeruetako Erreinuak..."

Legeko Amar Aginduak betebean-ezkoak dira eta Jesus'ek, orretaz gaiñera, maitasuna agintzen digu. Amar Aginduak justizia edo zuzentasunaren defensarako dira, -cure eskubideen defensarako: Biziarenak, 5'garrena; geure egiarenak, 8'garrena.

Besteek geure eskubideak zaindu bear dituzte eta geuk eurenak-, ala beartzen gaituzte Amar Aginduek. Ori justizia da. Baiña justizia ez da naikoa niundu onetan ondo bizi izateko; orren gaiñetik maitasuna bear da. Makina bat egiten danean, zati guztiak justu bear dute, olgurarik gabe; baña, tarteetan oliorik ipintzen ez ba'diozu, ain justu eta ondo egindako makina ori, erre egingo da. Justiziaren justutasun orrek maitasuna bear du tartean, gizartea erreko ez ba'da.

"Legea bete", euskaldunen antxiñako izkerean, zera esan nai du: itxurak egitea, legea kanpotik betetzea eta ez biotzetik. Farisaitarrek orixe egiten zuten: Legearen xeetasun txikiak bete, itxura egiteko, eta lege mardulak baztertu: eltxoak galbaian pasa eta kameluak irentsi. Legea biotz-barrutik bete bear da eta ez iñor begira dagoelako edo onak gerala esan dezaten. Itxurakeri oiek gogor salatzen ditu Jesus'ek.

Justiziaren aldeko legea bete, besteen eskubideak gordeta eta gaiñera, ntaitatuz, neure eskubideak eman, orixe da maitasuna.

AGINDU BERRI BAT DU
EMAN JAUNAK.
ELKAR MAITE DEZAGULA
BERAK GU BEZALA.

LENENGO AGINDUA; JAINKOA MAITATZEA

Jainkoa Aita dala eta Aita orrek asko maite gaituela, Jesus'ek erakatsi zigun; berak asmatu zuen Gure Aita otoitza guretzat. Eta, Jainkoa ba'da guztion aita, orduan gu alkarren anai-arreba gera. jainko Aita maitatu bear degu; baña, elkar ere bai.

Jainkoa ikusi-eziña da eta gauza ederrak egin zituen guretzat, gauza oien edertasunean bere edertasunaren zatitxo bat guri agertzeko. Jainkoak bere benetako irudirik ez dauka mundu onetan. Jesus'en irudia besterik. Jesus'ek onela esan zion Felipe apostulari:

"Ni ikusten nauenak, Aita ere ikusten du

Guk otoitzean arkitzen degu Jainkoa, baita Bera eta lagun-urkoa maitatzean, itxaso zabala eta zeruetako izarrak ikustean... Bere irudia guretzat, guraso maitagarri batena da.

Jesus'ek bere Aitarekin itz egiten zuen eta Gure Aita asmatu zuen bere ikasleentzat, auek ere bere Aitarekin itz egin zezaten. Emen mundo onetan ez gaude bakarrik, jende askoren artean baizik. Ala ba'da, alkarren artean konfiantza apur bat izan bear degu; Maria eta Jose'renganako urtea eta konfiantza izan zuen Jesus'ek oso osoa; baña, beste guztien gaiñetik, bere Aitarengan zitun urtea eta itxaropena.

Jainkoarekin ar-eman bereziak izaten ditugu igande eta jai-egunero, Jesus'en bitartez, euskaristia Jainkoari eskeintzen diogunean. Jesus'ek esaten digu Aitarekin ez ibiltzeko itza aotik jarioka degula. Eta, Aitari onela esateko: GURE AITA ZERUETAN ZARENA, SANTIFIKATUA IZAN BEDI ZURE IZENA, ETOR BEDI ZURE ERREINUA EGIN BEDI ZURE NAIA ZERUEAN BEZALA LURREAN ERE. EMAIGUZU GAUR EGUN ONTAKO OGIA, BARKATU GURE ZORRAK GUK ERE GURE ZORDU-NEI BARKATZEN DIEGUN BEZALA ETA EZ GU TENTALDIAN ERORTZEN UTZI, BAIZIKAN LIBRA GAITZATZU GAITZETIK.

Nola itz egiten diot nik Jainkoari? Etenik gabe itz egiñez? Adiskide giroan? Burua beste gauza batzuetan dedala?

Mundu onetan jende asko bizi gera eta alkarrekin otoitz egitea da gauzarik ederrena. Ori egiten degu jai-egunetako Eukaristietan: mundu osoan biltzen dira, gu gure elizan bezala, milloika kristau Aita Jainkoari bere Seme Jesus'en Eukaristia ospatzeko. Danok bat gera Jainkoari eskerrak emateko, gure okerkerien barkamena eskatzeko, bear ditugunak eskatzeko... Baita laguntza ere, Jainkoa maitatzean, lagun-urkoa ere maita dezagun. Orixe bait da Agindurik nagusiena: Biak, Jainkoa eta lagun-urkoa, maitatzea. Biak batera.

Jainkoa maitatzeak, bere Izena errespetoz erabiltzera beartzen gaitu... Orra Legeko Lenengo Agindua, nola irutan banatzen dan: 1- Jainkoa maite izan, 2- Eukaristia jaietan entzunaz, 3- Bere izena aotan ondo erabilliaz.

Gure Aita guztion aita ona da eta bere seme-alaba egin gaitu. Bera da munduaren egillea; baita gurea ere. Bere antzeko egin gaitu: aske eta libre. Bere Semea guretzako bialdu du mundu onetara... ESKERRIK ASKO, JAUNA, BIOTZ-BIOTZETIK...

JESUS'en BIGARREN AGINDUA: LAGUNURKOA MAITATZEA

Jainkoa maitatzea eta lagunurkoa maitatzea, biak, bat dira. Gure Jainkoa-maitatzearen neurria, lagunurkoa maitatzea da: Zenbat maite degu lagunurkoa? Ainbat maitatzen degu Jainkoa.

Eta, zer da lagunurkoa maitatzea? Gure eskuetan dagoena, bere alde egitea. Bere eskubideak errespetatu ondoren, nere eskubideetatik berari ematea. Naigabea eta ezbearrean dagoenean, berari laguntzea. Orixe da lagunurkoa maitatzea.

Baña, nor da nere lagunurkoa? Orixe galdetu zioten bein Jesus'eri. Eta erantzuna emateko, Jesus'ek ipui au asmatu zuen:

"Gizon bat zetorren Jerusalem'dik Jeriko'ra eta lapurren eskuetan erori zan. Lapurrek, zitun guztiak lapurtu, jantziak kendu eta erdi-illik utzi zuten baztar batean.

Jerusalem-elizako apaiza zetorren bidean eta ura ikusirik, beste bide batetik alde egin zuen. Berdin egin zuen Jerusalem-elizako lebita-serbitzari batek ere: Ikusi eta alde egin.

Baña, bidean zetorren samariatar batek, ikusi zuenean, ondora etorri eta zauriak lotu zizkion olio-ardoakin, astoan artu eta ostatura eramendu zuen.

Onela esan zion ostalariari: Ona emen bi denari-diru, zaindu zazu eta, berriro etortzen naizenean, falta dana ordainduko dizut. Iru oietatik, nor izan zan zaurituaren lagunurkoa?

Irugarena, Erantzun zioten.

Ba, zuek ere, egin beste orrenbeste".

Samariatarak, judeotarrentzat, bada ez badako jende txarra ziran, baña orretzek egin zion lagun zaurituari.

Gure errepideetan ere istripu bat izaten danean, askok iges egiten dute, gaizki gertatzen direnei lagundu gabe.

Eta, guk zer egin gure inguruan? Gu baiño okerrako dabilenari lagundu. Alkarri lagundu. Etxean eta etxetik kanpo. Ez gaitezala izan, "kanpo-larros eta etxe-mazusta"...

==I== ==I== ==I==

"NORA DOA GURE EUZKERA?"

GU EUSKEREAREN ALDE

Errialde baten altxor aundienetariko bat, bere izkuntza da, zalantza barik. Izkuntzak errialde oneri nortasuna emoten dautso eta ori dala-ta, zenbat eta aberatsagoa izan ele ori, askoz sendoago izango da errialdea.

Euzkereari dagokionean, erri txiki eta banatu baten izkuntza izatean, gatzago da. Gure aberria, Frantziaren eta Españaren artean kokatuta dago eta orren ondorioz, euren berbetak oso indartsuak diranez, eragin aundia dabe gure artean eta gure euzkera kutuna da galtzaille urtetan dauana.

Gauzak orrela, guk euskaldunok izan bear dogu bere alde alegin guztiak egin bear doguzanok, bidezkoa danez. Bestela, Ebaristo Bustinza "KIRIKIÑO"ren liburu bateko izenburuak diñon lez: "EDO GEUK EDO IÑOK EZ, EUZKEREAREN ALDE". Bai orixe. Guk ez ba dogu ezer egiten, kanpokoak bez.

AURRERA ALA ATZERA

Zoritxarrez, beste gai askotan lez, emen be, euskaldunok guztiz banatuta agertuten gara. Danak bat egin bearrean, bakotxa bere aldetik doa eta olan ez da arritzekoa gauzak, doazan Iegez, joatea.

Gaur egun, euskal erakundeak diru ugari erabilten dabe euzkerearen alde, aurrera egin dagian, ikastolak nun-nai doguz, euzkerearen aldeko alkarteak, ekitaldiak, geroago ta liburu geiago argitalduten dira euzkeraz, irrati ta telebisiñoak euzkeraz egiten dabe (batzuk beintzat), eta ori gorabera, zer lortu da? Ba, egia esateko... gitxi, ezebez ez esatearren eta ez ori bakarrik, euskaldun erri eta etxe askotan erdera nagusitzen joaku.

ZERGAITIK

Alde batetik, euskaldunen zabarkeriz. Bai, mingarri bada be, egi utsa da. Jendeak jakin arren, ez darabil; batzutan, erosoago egiten jakolako erderaz egitea eta beste batzutan, lotsatu egiten dalako.

Bestetik, Euskaltzaindiaren jokabidea eta berak sorturiko "el Batua" deritxona.

Baiña, ori baiño lenago, begitu dagigun atzeruntz denboran.

EUSKALTZAINDI ZINTZOA

1919garren urtean, Euskaltzaindia (jatorrizko ta benetakoa) sortu zanean, ba-egozan euskaltzale ospetsu ta zintzo batzuk, Azkue buru ebela. Orrean artean batzuk aitatu giñeiz: Eguzkitza, Campion, Urkijo, Olabide... eta abar.

Gizon oneik gogor ekin eutsoen euzkera obetu ta aldeztuteari eta batez be, bere batasuna lortzeari. Orretarako, Azkueren "Gipuzkera Osotua" oiñarri lez ebela. Orren alde egin eben lan, baiña euskalki guztiak kontutan artuta.

GUDALDIA

Geroago, 1936ko guda ankerra eldu eta Euskaltzaindiaren lana eten eginda geratu zan.

Guda ori amaitu eta urte batzuk igaro ostean, Euskaltzaindia asi zan bere lanean barriro be.

Urteak joan, urteak etorri, akademia onek aurrera jarraitu eban, eta olan, irurogei urteetara elduko gara.

EUSKEREA

LARRIALDIA

Urte oneitan asi ziran euzkerearen larrialdi eta zoritxarrak. Ona emen adibide batzuk:

On Manuel Lekuona, euskaldun jakintsu eta bikaiña. Euskaltzaindiatik kanporatua da, "el Batua" ^seroago izango dana, ez daualako onartu gura. Guzti ori azpikeriz eta koldarkeriz egiña.

1968'garren urtean, Euskaltzaindia "barri" onek ontzat emoten dau "el Batua" ori, euskaldun jatorren aolkuak baztertuaz.

Andik, amar urtetara, (1978an, ain zuzen be), beste batzar bat izan zan Bergaran, Euskaltzaindiaren banuan. Emen jazoko zan Euskaltzaindiaren banaketa.

**y

EUSKERAZAINTZA

Euskaltzale ta jakintsu batzuk, Euskaltzaindiatik urten eta Akademi barri bat sortu bearra ikusi eben. Olan agertu zan: EUZKERAZAINTZA-ERRI AKADEMIA.

EUSKALTZAINDI OKERTUA

Ordutik ona, gauzak olan ikusten doguz:

Alde batetik, Euskaltzaindia "barri"orrek, utsak zuzendu bearrean, aurrera darrai. Olan, "H" alper ori toki guztietan sartu, erderakadak zenbat gura, eta bere arauak onartuten ez dauzana, "or konpon, Mari Anton".

Orregaz, euzkera erreztu eta erakargarri egin bearrean, askoz gatxago egiten dau eta orren ondorioz, jendeak "Zein gatxa dan" esanaz ez dau onartuko gure berbeta ederra.

Ori eta guzti be, Euskaltzaindia "barri" onek alde guztietatik laguntza aundiak jasoten dauz, mueta guztietakoak. Beraz, aurrera jarraituko dau ondamentia zabalduz.

JOKABIDE JATORRAK

Bestetik, eta orreri aurre egin nairik, ba-doguz euzkera enikoaren alde lan eta ekintza txalogarriak

egiten dabezanak. Merezi dabe, bai, aitatuak izatea, erri lauak argi eta garbi jakin eta ezagutu dagizan.

Oneixek aitatu giñeiz: "Euzkera-zaleak" eta "Euzkerazaintza". Biak alegin danak egiñaz, euzkerea eriotzatik salbatu edo gaizkatu guran.

Gizasemeen artean, oneixek doguz: Aita Santi Onaindia (Euskaltzale eta olerkari ta euzkeratzaille parebakoa), Augustin Zubikarai (idazle jator eta oparoa), Iñaki Zubiri (idazle ta jakintsu bikaiña), Martin Olazar (Euskerazaintzako Lendakaria eta euskaltzale aspergabea), Karmelo Etxenagusia (euskal maisu ta euskeratzaille beiñena), besteak beste.

Danak lan aundia egiten dabe euzkerearen mese-dean; artzen daben ordaiña, ostera, oso urria da. Danok dakigu zergaitik.

| **

ERANTZUNA

Idazki oneri izenburua damotson itaunari erantzunez auxe esan giñei: Euskaltzaindiak daroan bidetik eriotzara doala, batez be, bere euskal sena ta jatortasuna kentzen ba dautsaz.

Eta ilten ba jaku gure Euzkerea, zer geratuko jaku? Azkenean, Euskal-Erria eta Zamora parra, eta gure nortasunari agur esan bearra.

Alan be, ondiño sasoiz gagoz euzkerea indartuteko barrero. Eta ori zelan lortuko litzake?

Euzkera ondo batu gura ba'dogu, euskalkiak garrantzi aundikoak dira, eta oneik be balio bear dabe orretarako. Orduan, bai alde batekoak (Euskaltzaindikoak) eta bai bestekoak (euzkera errikoaren aldezeak), euren alegiñak batu bear leukiez, euren arteko aldeak aaztuz, berandu izan baiño lenago.


Euskaldunok beti ibilli izan gara bananduta. Emen dogu aukera ezin-obeia, benetako batasun bat lortzeko.

Pentsakera eta pertsonen gaiñetik, gure Euzkerek iraun egin bear dau, orain, biar eta betiko.

Ez al gara izango ori lortuteko gauza?

MALAX-ETXEBARRIA TAR JON
"KALAMUA"

LAGUNTZEN



Joan zan azillaren erdian, DEIAeguneroko izparrin-gian, niretzat onbidekoa izan zan barri bat irakurri neban: Jabetzadun Iru Euskal-errialdeetako Aldundiak eta Eusko-Jaurlaritzak milla milloi emon dabezela Irugarren Munduari laguntzeko eta bide orretatik laguntza emoten dabilzan erakundeai bi edo iru milloi eskiñi dautsezala.

Gai oneri buruz neure lagun bategaz berbetan nengoala arek auxe esan eustan: Konturatu zaite eta ikusi, Jabetzadun gure Alkartea, ez Irugarren mundurako bakarrik, emengo gizarte-bearrizanetarako be laguntzen agertzen dala, ebanjelio-giroan.

Eta au izan zan nire erantzuna: Bai, gizona, kristai-ñau-maitasun orren eta laguntzaren bitartez, aurkitu dagigula gure Jaungoiko ona ainbeste gogorkeri ta okerkeriren artean.

Lau egun geroago, "Zuzendariari eskutitzak" saillean, gure giro onetan agertzen dan egunkari baten, berezale batek auxe esaten eban: "Ori ondo dago, baiña geure gauzak, geure arazoak, lan-sariak eta olakoak aztertu bear dauz lenengo Eusko Jaurlaritzak".

Oneri erantzuna emoitea ez da gaitxa: "Gauza biak egin leitekez" "Oneik egin bear dira, areik itzi barik" diñoan esaldia betetuz.

Onena litzake, lenengo Jaungoikoaren bideak artu eta berari biotz-maitasuna agertzea, orrelan geuri dago-kiguzan gauzak obeto urten dagien.

Orrez gaiñera beste au be jakin bear dogu: Lendakari orde dan Azua jaunak langintzan korapillotsuak diran arazoetarako 30.000 milloi lortu dauzala. Diruketarako Eusko Jaurkideak jo-muga onen ardurea agertzen dau.

Jaungoikoaren maitasunak argi eskatzen dau urko lagunari laguntzea, eta ondo dakigu bide orretatik ez doan erlejiñoa ez dala benetakoa, Santiago Apostoluaren idazkian argi ta garbi irakurten dan lez.

Poztuten gara, orretan beintzat, gure Jaurlaritza bide onetik joateagaz.

LETONA'k

EUSKERAZALEAK (25 URTE)

OSPAKIZUNA: BAGILLAREN 20'an

BERBALDIK: 15'etik 19'ra ESKOLAPIOETAN (BILBAO'n)

(EGIN IRRINTZI ETA AURRERA)

BIZKAI'KO EUSKEREAA...

Guk geuk. beti esan izan dogu, bizkaieraa barik ezin izan daitekela euskerearen bateratasunik.

Berandu baldin ba'da be, batzuk asi direala konturaten esan geinke.

Urri'ko azken-astelenean, Lopategik eta Jon Enbeita'k, naiz-ta Bizkai'ko euskera jator-jatorra erabilili ez, bizkaieraz ekin eutsen betsoetan. Nozbait konturatu dira, antza, erriari bere izkeTan azaldu bearra doguna.

Or agertu da beste idatzi bat be nolabait bizkaieraa aldeztuz (?). Baia, or batzuk azaldu izan direanez, bizkaierazko itzak erabiltea bakarrik ez da bizkaierari bateratze onetan lekua emotea. Aditzak bere badiara Bizkai'ko euskalkitik artu bearrekoak. Esate baterako, egin-etik sortzen direan aditzak: **Diezaioedan** baiño askozaz bere egokiagoa dogu **dagioedan**; **dezaket** baiño **dagiket** eta abar, gureak **egiñetik** bertatik sortuak direalako ta ulerteTrezagoak eta adirazgarriagoak bere bai. Bardin berein esakera ta joskera bere.

Or dabiz, oraingo **euskara-zaleak ari izan** gora ta **ari izan** beera be, gure itz egokiagoak eta askotarikoak bazterturik. Ez ete-doguz, ba, beti **ari izanka** jar-

dun barik **diardut, daragoiot beutsot** eta abar egokiagoak, bizkaieraz erabilten doguzanak?

Euskerearen ugaritasun egokiak baztertu eta arau estu-estu batzun barruan ezin izan daiteke adarririk onenak iñausitako euskera gaiztoa baiño: Sortu orduko eriotzara doan izkera ekin eta geixoa.

Izkuntzen bateratasuna idazleen eginberra da, uste-go (teori) asko eta euskal-sen gitxi edo apur7ik bere ez dauken euskerearen **zaintzailleena** barik. Artu daiguzan eredutzat Zaitegi, Ibiñagabeitia, Orixe. Kirikiño, Eguzkitza, Lan-akoetxea ta abar, geure idazle jatorrak eta idatzi eta erabilili daigun zentzunez geure izkuntza maitagarria.

Zentzuneratuko al gara, Nozbait, euskaldunok: Orduantxe bai sortu daiteke euskalki guztiak ontzat artu leikeen benetako euskal-senezko euskerearen bateratasuna. Artean jarrai dagigun bakotzak bere iskelgia alik ondoen edertu, indartu eta zabaltzen.

AURRE-APRAIZ



BALTZAK ETA ZURIAK

Gure mundua bira-biraka dabil eta atzo ona izan zana, gaur txarra biurtzen jaku, eta alderantziz be bai.

Aldi baten zuriak Afrika'ra joan ziran eta an nagusitu. Bertakoak ziran baltzak, ezelako eskubide barik geratu ziran eta Europa'tik joandako zuriak eskubide guztiak daukezala.

Orain baltzak etorri nai dabe Europa'ra, ainbeste aundikeri barik, lan eginda eguneroko ogia irabazteko bear-izanak eraginda, eta Europa'tarrak ez dautse izten sartzen.

Eta zer^s aitik azkenengo jokabide au?

Ogia zatitu ezkeru, guztientzat ez litzakelako elduko.

Orra or euren ogitik emon euskuen baltzak, gaur eurentzat ogi barik!

Noiz elduko ete gara baltzak eta zuriak alkartuta eta daukaguna alkar-banatuta bizi izatera? Amets utsa ete da anaitasun au?

Ego-Afrika'n beintzat aspertu dira norkeri orregaz eta guztiak eskubide bardiñak eukitea eskatzen dabe baltzak eta zuriak.

Baltzak ba-dakigu zergaitik eskatzen daben ori.

Eta zuriak?

Beste errazoi bat dauke. Urreko ta un-iñeko laterriak artu-emonak eta laguntza emoteko, norkeriak kentzea eskatzen dautselako. Azkenean ogiaren arazoa emen be!

MARTIN

JOXE MIGEL BARANDIARAN

Euskal Erriko etnologari ospetsuena, zelan eta zergatik asi zan Euskal etnologia aztertzen, berak edestuko deusku.

"Euskal Erriko etnologiaren erlijio aldea zan niretzat jakingarririk gorengoena, baiña alderdi ori euskal etnologiaren beste alde guztiakin lotuta egoala jabetu nintzan, eta onegatik nire ikuspegia zabaldu egin bear nebala laster ikusi neban.

Nik batez be au jakin gura izan dot; zelako erantzunak emoten deutsezan euskaldunak onango itaunai: Ni nor naz'? Nondik nator? Nora noa? Gure etorkizuna zelakoa da?

Gizona aske-librea da, eta aske dalako eta bere buruaren jabe, gizonak bere etorkizunari aurpegia emon bear deutso, bere bizitza osoa azken elburu orretara zuzenduz...

Eta nire gogo ori beteteko euskaldunen pentsaera, oiturak. kultura eta abar aztertzen asi nintzenean "separatistatza" artu ninduen.

Orain ez da orrela. baiña garai aretan bai. Gauzak onetan be aldatu egin dira, eta onerako aldatu be... Gaurko euskaldunak antziñakoen lur berean bizi dira, eta gaurko euskaldunak eta antziñakoak euskera bardiña itz egiten dabe, baiña oraingo eta lengo euskaldunen burubideak ez dira bardiñak.

Gaur "materialismoa" sartu da, dotriña lez, euskaldun askoren buruetan, baiña ori ez da "Humanismoa". Bizitzeko zaletasuna eta egoki bizitzeko atsegiña aberai be nabaitzen dabe, baiña ori ez da gizonaren berezitasuna... Gizonak bere barruan nabaitzen dituan arazoai erantzun egoki bat emotea, ori da "humanismoa". Abereak ori egiten ez dakie.

EUSKERA

Euskal Erriarentzat garrantzi andikoa da Euskera. Euskeraz ala erderaz itzegiten ez da bardin. Gure barrengo gogorapenak kanpora agertzeko Euskerak bere bide bereziak ditu, eta erderak beste bide batzuk. Euskera kutxa zar, eder baten antzekoa da. Kutxa onetan antziñako gure gurasoen altxor baliotsu hat dago gordeta, eta kutxa orren giltza Euskera da.

Euskal Erriak bere izkuntza, kultura eta etnia bereziak ditu, eta izkuntza eta kultura orrek, urak lurraldeetan zear legez. bere bide bereziak egiten dakiz... Euskal Erriko kultura bere izkuntzan, Euskeraz. garatuko

balitz. guztiz gorengo maillara, beste izkuntzak legez, igongo litzakela, uste dot.

Izkuntza da Erri baten Nortasuna agertzen dauan ezaugarri argiena. Izkuntzak Erriak eta taldeak bat egiten ditu.

Baiña onek ez dau esan gura erri baten Nortasuna izkuntzak bakarrik erakusten dauala. KULTURA da EsTi batek daukan altxorrik baliotsuena.

Nik ba dakit Euskal Kultura Euskera barik bizi dai-tekeela, baiña kultura ori oso txiroa eta moztua izan ^go litzake.

ETA "BATUA" ZER?

Batua bearrezko da idazkera bardiña danok erabilteko; ala egin da beste izkuntzetan be.

Baiña emen dago untzea: zelan eta zer bidetik batu? Arazo onetan euskal idazleak zatituta ikusten dodaz. Ni Euskaltzaindikoa naz, baiña ez naz ango batzarretara joaten, ango izkuntzalarien artean barregarri geratu ez naiten.


Batua egiteko jarri diren oiñarriak ez dodaz onartzen, baiña onek ez dau esan gura ^geroago, bear bada, ez dodazala onartuko. Esaterako "H" ori ez dot maite, baiña erabilten dot; baiña esan dodan legez, ez dot maite.

BatasLmarl buruz, gauzak astiroago, baketsuago eta demokratikoago egin balira, guztiontzat obe izango zala, uste dot. Esatekoa esan dot: gaurko Euskera batua ez jat atsegin, baiña biar obea dala ikusiko ba'neu, onartuko neuke.

GOIKOETXEA IÑAKI. S.J.

=x= =x= =x=

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa